

## 2017/18 ikasturtean UPV/EHUko graduko ikasketetara sartu eta ikasketetan onartua izateko prozedura

### Proposamenak oinarri daukan legedia:

- Abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa, Hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa.
- Ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretua, graduko unibertsitate ikasketa ofizialetan ikasleak onartzeko prozeduren oinarrizko arautegia ezartzen duena.
- Uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioko probaren ezaugarriak arautzen dituena.
- Hezkuntzaren Kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 5/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko zehaztutako egutegia zabaltzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- Abenduaren 22ko ECD/1941/2016 Agindua, zehazten dituena 2016/17 ikasturterako Unibertsitatera Sartzeko Batxilergoaren Ebaluazioaren ezaugarriak, diseinua eta edukia, eta ebaluazioa egiteko eta kalifikazioak berrikusteko prozeduraren epeak.

## Unibertsitaterako sarbidea

### LOMCE Batxilergo titulua 2017an lortu duten ikasleak

Hezkuntzako agintariek unibertsitatearekin lankidetzan antolatuko dute Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE). Ebaluazioak bi fase izango ditu:

#### 1. *Sarbide fasea*

Fase hau gainditzea ezinbestekoa izango da unibertsitatera sartzeko. Fase honetako azterketak Batxilergoko 2. mailan ikasitako enborreko irakasgaienak izango dira, modalitatearen arabekoak. Batxilergoan ikasleak modalitate bi edo gehiago egin baditu, probarako horietako bat aukeratu beharko du.

- Euskara eta Literatura II
- Gaztelania eta Literatura II
- Espainiako Historia
- Atzerriko Lehen Hizkuntza II
  - Alemana
  - Frantsesa

- Ingelesa
  - Beste irakasgai bat gehiago Batxilergoan ikasi eta probarako aukeratu den modalitatearen arabera:
    - Zientziak: Matematika II
    - Giza eta Gizarte Zientziak
      - Giza Zientziak bidea: Latina II
      - Gizarte Zientziak bidea: Matematika Gizarte Zientziei Aplikatua II
    - Arteak: Artearen Oinarriak II
2. *Onarpen fasea*

Fase hau borondatezkoa da eta gradu baterako onarpen nota hobetzea dauka helburu. Ikasleak gehienez lau gai aukeratu ahal izango ditu: hautazko enborrekoak izanik **Batxilergoan aukeratutako modalitatekoak ez direnak.**

- |                          |   |
|--------------------------|---|
| ○ Biologia               | ○ Filosofiaren Historia                     |
| ○ Marrazketa Teknikoa II | ○ Latina II                                 |
| ○ Fisika                 | ○ Matematika Gizarte Zientziei Aplikatua II |
| ○ Geologia               | ○ Arte Eszenikoak                           |
| ○ Matematika II          | ○ Ikus-entzunezko Kultura II                |
| ○ Kimika                 | ○ Diseinua                                  |
| ○ Enpresa Ekonomia       | ○ Artearen Oinarriak II                     |
| ○ Geografia              | ○ Ingelesa                                  |
| ○ Grekoa II              |   |
| ○ Artearen Historia      |   |

### Kalifikazioa

- Azterketa bakoitzaren kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da.
- Sarbide faseko kalifikazioa enborreko bost gai orokorren batez besteko aritmetikoa izango da; kalifikazioa adierazteko era: 0tik 10era bitarteko eskalan hiru dezimalekin, milarenera biribilduta. Gutxien dela 4 puntu lortu behar dira.
- Unibertsitaterako sarrera nota era honetara zehaztuko da:

$$USN = 0,4 \times SFK + 0,6 \times BK$$

SFK: Sarbide faseko kalifikazioa; BK: Batxilergoko kalifikazioa  
Gutxien dela 5 puntu lortu behar dira.

### Onarpen nota

Graduan onartua izateko, onarpen nota erabiliko da:

$$GON = USN + C_1 \times M_1 + C_2 \times M_2 + C_3 \times M_3$$

$C_1$ ,  $C_2$  eta  $C_3$ : haztaperen koefizienteak;  $M_1$ ,  $M_2$  eta  $M_3$ : gainditutako irakasgaien kalifikazioak, UPV/EHUK bere ikasketetan onartua izateko ezarritako irizpideei jarraituz.

### USErako datak

- Ohiko deialdia: ekainaren 7, 8 eta 9an
- Ezohiko deialdia: uztailaren 5, 6 eta 7an

### Probetako hizkuntza

Hizkuntza koofizialetako edozeinetan egin ahal izango da.

### Azterketa berrikusteko prozedura

1. Azterketa berrikusteko eskaria eginez gero, azterketa hori lehenengo zuzenketa egin ez duen zuzentzaile batek egingo du.
2. Lehenengo eta behin, egiaztatuko du nota kalkulatzeko ez dela errakuntzarik egin eta galdera guztiak zuzendu eta kalifikatu direla.
3. Errakuntzarik badago, azterketa zuzenduko du. Kalifikazioa lehenengo kalifikazioaren eta bigarrenaren arteko batez besteko aritmetikoa izango da. Lehenengo eta bigarren zuzenketa arteko aldea bi puntutik gorakoa bada, hirugarren zuzenketa egingo da ofizioz. Azken kalifikazioa hiru kalifikazioen arteko batez besteko aritmetikoa izango da.
4. Errakuntzarik badago, zuzendu egingo ditu, eta, ondoren, errakuntzarik ez daukan parte zuzenduko du. Azken nota honakoa izango da: errakuntzarik izan duen partean lehenengo eta bigarren zuzenketa lortutako kalifikazioen batez bestekoa, gehi errakuntzak zuzentzean lortutako puntuazioa.
5. Berrikusketa denez, behin betiko nota hasiera bateko nota baino txikiagoa edo handiagoa izan daiteke, edo berdina. Eta, hain zuzen ere, errakuntzak zuzentzean litekeena da nota okerragoa lortzea.
6. Epaimahaiak behin betiko nota jasotzeko erabakia emango du eta erreklamazio egileari jakinaraziko dio.
7. Azterketak berrikusteko prozesua behin bukatuta, epea irekiko da berrikusitako azterketak ikusteko eskaria egiteko.

### Aurreko ikasturteetako ikasleak

1. Kasuan kasuko ikasturtean unibertsitatara sartzeko indarrean zeuden probak gaindituta izan behar dituzte.
2. USNa proba horietan lortutako izango da.

3. Onarpen nota hobetzeko, aukera izango du aztergai diren gaietako edozeinetara aurkeztea. USNa hobetzeko, sarbide faseko azterketa guztiak egin beharko ditu.

### **LOE Batxilergo titulua 2017an edo 2016an lortu arren USPa gainditu ez zuten ikasleak**

1. Unibertsitatean sartzeko aukera dute USEa egin gabe.
2. USEa gaindituta ez badute, baina, azkenak izango dira graduan onartuak izateko zerrendan.

### **Lanbide Heziketako ikasleak**

- Goi mailako prestakuntza zikloko tituluak unibertsitateara sartzeko eskubidea emango dio ikasleari. USNa zikloko batez besteko nota izango da.
- Onarpen nota hobetzeko, aukera izango du aztergai diren gaietako edozeinetara aurkezteko, enborreko orokorrak barne. GONA kalkulatzeko era Batxilergoko ikasleentzako bera izango da.
- Graduaren jakintza adarrarekin lotutako profesioetako prestakuntza zikloren bat egin duten ikasleek lehentasuna izango dute mota horretako ziklorik egin ez duten ikasleen aldean.

### **EBko herrialdeetan edo elkarrekikotasun hitzarmena sinatua daukaten herrialdeetan egindako ikasketak**

- Unibertsitateara sartzeko aukera dute, baldin eta kasuan kasuko herrialdean unibertsitateara sartzeko baldintzak betetzen badituzte.
- USNa UNEDek emandako agirian jasotakoa izango da.
- GONA UNEDek Batxilergoko ikasketak oinarri hartuta zehaztutakoa izango da edo UNEDen egindako USEko onarpen fasean lortutakoa.

### **Elkarrekikotasun hitzarmena sinatua ez daukaten herrialdeetan egindako ikasketak**

- Batxilergo titulua behin homologatuta, unibertsitateara sartzeko eskubidea daukate.
- UNEDek antolatutako USEra aurkez daitezke.
- Ez badute unibertsitatean sartzeko probarik gainditu, azkenak izango dira graduan ikasleak onartzeko zerrendan.

## **Ikasleak onartzeko prozedura**

### **Kupo orokorra**

### **Lehentasunak Batxilergoaren arabera**

Zientzietako Batxilergoak lehentasuna izango du honako graduetan:

#### ***Jakintza adarra: Zientziak***

- Biologia
- Biokimika eta Biologia Molekularra
- Bioteknologia
- Ingurumen zientziak
- Elikagaien Zientzia eta Teknologia
- Fisika
- Geologia
- Matematika
- Kimika

#### ***Jakintza adarra: Ingeniaritza eta Arkitektura***

- Arkitektura Teknikoa
- Ingurumen Ingeniaritza
- Ingeniaritza Zibila
- Ingeniaritza Elektrikoa
- Ingeniaritza Elektronikoa
- Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
- Energia Berriztagarrien Ingeniaritza
- Informatikaren Ingeniaritza
- Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
- Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza.
- Ingeniaritza Mekanikoa
- Ingeniaritza Kimikoa
- Industria Kimikaren Ingeniaritza
- Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritza
- Industria Teknologiaren Ingeniaritza
- Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritza
- Automobilgintzaren Ingeniaritza (onartzeke)

Gainontzeko graduek ez dute lehentasuneko batxilergorik.

## Lehentasunak prestakuntza zikloen arabera

Lehentasuna izango dute graduaren jakintza adarrarekin lotutako profesioetako prestakuntza zikloen bat egin duten ikasleek.

## Sarrera nota eta graduko onarpen nota

### Sarrera nota

1. Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE) gainditu duten ikasleen kasuan: **Unibertsitateko sarrera nota** era honetara kalkulatu da:

$$0,4 \times \text{SFK} + 0,6 \times \text{Batxilergoko batez besteko nota}$$

SFK: USEko sarbide faseko kalifikazioa.

2. Honako titulu ofizialen bat daukaten ikasleak: Espainiako Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketako goi mailako teknikariaren titulua, Diseinu eta Arte Plastikoetako goi mailako teknikariaren titulua, edo goi mailako kirol teknikariaren titulua, edo, titulu horien pareko diren titulu, diploma edo ikasketak edo titulu horiekin homologatutako titulua. **Zikloko batez besteko nota.**
3. Europar Batasuneko estatuetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak edo arlo honetan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekotasun hitzarmenak dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak (aurrerantzean *Europar Elkartekoak*), Batxilergo titulu, diploma edo ikasketak badituzte edo Europar edo Nazioarteko Batxilergoa badute: **UNEDek emandako agirian jasotako nota.**
4. Europar Batasuneko estatuetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak edo arlo honetan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekotasun hitzarmenak dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak, baldin eta titulua, diploma edo ikasketak ez badira Espainiako Hezkuntza Sistemako Batxilergoko, Lanbide Heziketako goi mailako teknikariaren, Diseinu eta Arte Plastikoetako goi mailako teknikariaren edo goi mailako kirol teknikariaren tituluren pareko, eta kasuan kasuko hezkuntza sistemako unibertsitateetara sartzeko baldintzak betetzen badituzte: **UNEDek emandako agirian jasotako nota.**
5. Espainiako Hezkuntza Sistemako Batxilergo tituluarekin homologatutako titulua, diploma edo ikasketak dituzten ikasleak, Europar Batasunekoak ez diren edo Batxilergo titulua elkarri onartzeko nazioarteko hitzarmenik sinatuta ez duten estatuetako hezkuntza sistemetan lortua edo egina badute (aurrerantzean *Europako Elkartetik kanpokoak*): **UNEDek zehaztutakoa curriculumaz zertu ondoren.**

6. Espainiako antzinako Hezkuntza Sistemari Batxilergoak ikasita izanik unibertsitate sartzeko eskubidea lortu zuten ikasleak: **Garai hartan unibertsitate sartzeko eskubidea eman zien nota.**
7. Sarrera notak ez du epemugarik izango.

### **Gradurako onarpen nota**

1. Era honetara zehaztuko da:

$$GON = USN + C1 \times M1 + C2 \times M2 + C3 \times M3$$

C1, C2 eta C3: haztapen koefizienteak; M1, M2 eta M3: gainditutako irakasgaien kalifikazioak, UPV/EHUk bere ikasketetan onartua izateko ezarritako irizpideei jarraituz.

2. Gainditutako gaiak baino ez dira kontuan hartuko.
3. Graduari lotutako gaien kalifikazioa era honetara lortuko da:
  - a. USEko kalifikaziotik;
  - b. aurreko araudien babesean egindako unibertsitate sartzeko probatik;
  - c. atzerriko ikasketak dituzten ikasleen kasuan, kasuan kasuko herrialdean egindako pareko probetakoa, UNEDen agiriarekin; edo UNEDen xede horrekin egindako probakoa.
4. Gradu bakoitzean graduari loturako gehienez ere hiru gai hartu ahal izango dira kontuan, 0,1etik 0,3ra arteko haztapenarekin.
5. Onarpen faseko gaien kalifikazioak bi ikasturterako balio-epea izango du, azterketa hauek gainditu direnetik kontatzen hasita.

### **Plazak esleitzeko era**

#### **Lehenengo**

1. USEa gainditu duten ikasleak, eta gradurako lehentasuna daukan Batxilergoak egin dutenak.
2. Graduaren jakintza adarrarekin lotutako profesioetako goi mailako prestakuntza zikloren bat egin duten ikasleak.
3. Europako Batxilergo titulua edo nazioarteko Batxilergo titulua duten ikasleak, titulu hori graduan lehentasuna daukan Batxilergo tituluaren pareko bada.
4. Europako Elkartearen atzerriko ikasketak eginak dituzten ikasleak, ikasketak horiek graduan lehentasuna daukan Batxilergo tituluaren pareko badira eta kasuan kasuko herrialdean unibertsitatean sartzeko eskubidea badute.



5. Europako Elkartean atzerriko ikasketak eginak dituzten ikasleak, ikasketa horiek graduaren jakintza adarrarekin lotutako profesioetako goi mailako prestakuntza zikloren baten pareko badira eta kasuan kasuko herrialdean unibertsitatean sartzeko eskubidea badute.
6. Europako Elkartetik kanpoko ikasketak eginak izanik Batxilergoa homologatua daukaten ikasleak, ikasketa horiek graduaren lehentasuna daukan Batxilergo tituluaren pareko badira, eta unibertsitatean sartzeko proba gaindituta badute.
7. Espainiako antzinako Hezkuntza Sistemaren Batxilergoa ikasita izanik unibertsitatean sartzeko eskubidea lortu zuten ikasleak, eta batxilergo hori graduaren lehentasuna daukan batxilergoaren pareko bada.

### **Bigarrenik**

Aurreko egoeraren batean egonik, graduaren lehentasuna daukan ikasketarik egin duten ikasleak.

### **Hirugarrenik**

Aurreko ataletan zehaztutako baldintzak indarreko ikasturteko ezohiko deialdian bete dituzten ikasleak.

### **Laugarrenik**

1. ECD/1941/2016 Agindu xedapen iragankor bakarrean zehaztutako ikasleak izanik unibertsitatean sartzeko proba gainditu gabe dutenak.
2. Europako Elkartean atzerriko ikasketak eginak dituzten ikasleak, kasuan kasuko herrialdean unibertsitatean sartzeko eskubiderik izan gabe.
3. Europako Elkartean atzerriko ikasketak eginak dituzten ikasleak, Batxilergoa homologatua izanik unibertsitatean sartzeko proba gainditu gabe dutenak.

### **Tituludunen kupo**

Unibertsitateko tituludunak (unibertsitateko lehenengo edo bigarren zikloko, graduako edo masterreko titulua):

- onarpen nota tituluko batez besteko nota izango da (1125/2003 EDaren arabera zehaztua)
- Atzerriko titulua daukatenean, tituluaren homologazio egiaztagiria aurkeztu beharko dute.



## **25 urtetik gorakoen, 45 urtetik gorakoen eta lan esperientzia daukaten 40 urtetik gorakoen kupoak**

### ***25 urtetik gorakoentzako USPa***

- Onarpen nota proban lortutako nota izango da.
- Lehenik, lehenitasuna izango dute proba unibertsitate honetan egin duten hautagaiek; bigarrenik, probako fase espezifikoan graduarekin lotura daukan jakintza adarra aukeratu dutenek.

### ***45 urtetik gorakoentzako USPa***

- Onarpen nota proban lortutako nota izango da.
- Hautagaiek unibertsitate honetan egindako sarrera proba izan behar dute gaindituta.

### ***Lan arloko esperientzia daukaten 40 urtetik gorakoentzako USP***

- Onarpen nota balorazioko nota izango da
- Hautagaiek unibertsitate honetan egindako sarrera proba izan behar dute gaindituta.

## **Goi mailako eta errendimendu handiko kirolarien kupoak eta ezgaitasunak dituzten pertsonen kupoak**

Honakoak dira kupoak:

- Goi mailako eta errendimendu handiko kirolariak: onarpen notaren arabera, sarbide mota kontuan hartuta Goi mailako kirolariak lehenitasuna izango dute errendimendu handikoen aldean, eta horien artean, 971/2007 EDak zehaztutako lehenitasun irizpideak ezarriko dira. Ohiko deialdian talde honetarako gordetako plazaren bat bete gabe geratuz gero, ezohiko deialdirako gordeko da.
- % 33ko ezgaitasuna edo hortik gorakoa daukaten pertsonak: onarpen notaren arabera, sarbide mota kontuan hartuta Ohiko deialdian talde honetarako gordetako plazaren bat bete gabe geratuz gero, ezohiko deialdirako gordeko da.